Gaian sar zaitez

Orrialde bikoitz honetako liburu azalak, ondoko orrialde bikoitzeko laburpen egokiekin lot itzazu. Horren egiteko hartu dituzun seinaleak eman beharko dituzu (izenburuaz gain).










batela
Alfonbra berria
J. M. Olaizola "Txiliku"
Jesus Lucas
8
elkar


Astigar basoa
Endika Zabalza


batela
Hitz eta zaunka
Joxan Ormazabal
Jose Belmonte
14
elkar


MATXINSALTO
BILDUMA
Euskaldun bat Marten
Iñaki Zubeldia

HARRIET
REDONDO
JON eta MIRKA
EDIZIO OSOA
HARRIET EDICIONES

A –
Nafarroako Baldorba bailaran gertatzen den bi lagunen arteko istorioa honek agian zure inguruan gertatzen diren gauzak beste modu batera ikusaraziko dizkizu. Basoan etxola txiki bat dute Amaiak eta Enekok. Egun batean, ezustean, bola batekin egingo dute topo, hiruki gorri bat duen bola urdin eder bat. Gertakizun honek Amaia eta Enekoren bizitza eta ingurukoena hankaz gora jarriko du, eta zergatik ez, seguru aski zurea ere bai. Elkar ulertzeaz eta errespetuaz mintzo den liburua.

B –
Arratsalde baketsu batean, soinu berri bat entzun zen Zarauzko Santa Barbara mendian, eta geroxeago argi dirdiratsu itsugarri bat jaitsi zen ortzitik mendi gainera. Horrelaxe heldu ziren martelarrak Euskal Herrira *ovni* batean. Euskaldun bat eraman nahi zuten Martera.

C –
Kaixo! Txano dut izena, eta anaia biki bat dut: Oscar. Ikusi al duzu inoiz meteorito bat zerutik erortzen? Ba, guk bai… Uda hasieran, txango bat egiten ari ginela, halako batean suzko bola erraldoi batek zeharkatu zuen zerua gure begien aurrean, eta basoan erori zen! Bai, badakit berehala aldendu behar izango genukeela handik, baina ez, gu meteoritoaren bila abiatu ginen. Baita aurkitu ere! Harri berde bitxi bat zen. Bere distiraren atzean gordetzen zuen sekretuak betiko aldatu zuen gure bizitza. Etorri nahi duzu gurekin sekretu hori argitzera?

D –
Egun batean neskatila batek, ataritik irtetzerakoan, hantxe ikusi zuen, etxeko horma on-doan, robot txikia, asperturik egoteko itxuraz. Hori iruditu zitzaion nes-ka-tilari, robota kolpeka ari baitzen zoruaren kon-tra, metalezko oin-txoa-re-kin, astiro eta erritmikoki, espaloiko harlauzen gai-nean. -Galduta nago-esan zuen txistuaren pareko ahotsaz, eta neskatilak ez zuen ezer esan, hura ez baitzen oso gauza normala. Egia esateko neskatilak inoiz ikusi gabea zeukan benetako robot bat.

E –
Izaki zibernetikoak, robotak, androideak, makinak… zertan desberdintzen dira gugandik? Amets egiten al dute ardi elektronikoekin? Ba al dakite maitasuna zer den? Eta gorrotoa? Eta beldurra? Galdera horiei erantzuten dieten filme batzuen errekreazio libreak irakurriko dituzu liburu honetan: Terminator, Blade Runner, Westworld eta Alien.

F –
Isolaturik dagoen umezurtzen etxe batean sartu berri da Jon. EZ du familiarik, eta ez du inor ere. Izaera inkonformista du, eta horregatik talaka egingo du tokiko harroputzekin eta eskolako zuzendariarekin. Gau batean, Mirkak gidatutako espazio-ontzi bat agertzen da. Neskatoa estralurtar gazte bat dan eta bere misioa da duela mende asko Lurretik gertu desagertu zen espedizio estralurtar bateko kideak aurkitzea.
Jonek ez du umezurztegitik ihes egiteko aukera galtzen utziko, eta Mirka konbentzituko du bera ere misioko kide izateko.
Horiek horrela, abentura berri batean murgilduko dira: besteak beste, ozeano Atlantikoan hondoratutako galeoi espainiar baten hondakinak esploratuko dituzte, Erdialdeko Amerikako oihaneko aztarnategi inka batean sartuko dira edota espazioko mugaldean barrena bidaiatuko dute.

G –
Bazen ehiztari bat oso tirolaria, tiro eta tiro ibiltzen zena.
Txakur bat ere bazen oso zaunkaria, uau eta uau isiltzen ez zena.
Halako batean, txakur zaunkariak letagin zorrotzeko basurde handi-handi batekin topo egin zuen aurrez aurre.
Eta susto haren ondorioz, gauza harrigarriak gertatu ziren handik aurrera.

H –
Alizia XIX. Mendeko Ingalaterran bizi den neska kokina da. Egun batez, erreka bazterrean aspertzen ari delarik, sakelako ordulari bat duen untxi bat ikusi duela iduritu zaio. Haren ondotik abiatzea deliberatu du. Eta orduan...
Untxi horren ziloan sartuz —eta abentura zenbaiten ondotik— lurralde miresgarrira heldu da. Han izaki bitxiak ezagutu ditu: txapelgile eroa, martxoko erbia, beldar nargile erretzailea... Baina lurralde miresgarriko biztanle bitxiena hango buruzagia da: bihotzetako erregina.

I –
Bare erregeak eta beste preso arriskutsu batek Mikrongo Segurtasun Handiko Izarrarteko Espetxetik ihes egitea lortu dute. Ontzi bat lapurtu, galaxia zeharkatu, eta Lurrera bidean doaz. Lurrean, Superpatatari eginkizun berri bat eman diote: Mastekatzaile harrapatzea. Kostako zaio, ordea. Izan ere, Mastekatzailek metalezko baraila birrintzaile berri-berri bat dauka, izugarri ahaltsua, eta, dirudienez, inon den patatarik ausartena hozkatuz estreinatu nahi du. Hala ere, hori guztia abenturaren hasiera baino ez da ...

J –
Anartz eta Aioraren etxeko egongelan badute alfonbra zaharkitu bat, eta amak berria erostera bidali du aita. Anartzek eta Aiorak aitari lagundu diote dendara. Baina alfonbrak saltzen dituzten dendetan beti dago arriskua bakarren bat alfonbra hegalaria izateko. Halako batekin topatu dira Anartz eta Aiora. Jakina denez, alfonbra hegalariak Ekialdekoak dira, eta Anartz eta Aiora haren gainean jarri direnean ... magia gertatu da.

A – Astigar basoa

Nafarroako Baldorba bailaran gertatzen den bi lagunen arteko istorioa honek agian zure inguruan gertatzen diren gauzak beste modu batera ikusaraziko dizkizu. Basoan etxola txiki bat dute Amaiak eta Enekok. Egun batean, ezustean, bola batekin egingo dute topo, hiruki gorri bat duen bola urdin eder bat. Gertakizun honek Amaia eta Enekoren bizitza eta ingurukoena hankaz gora jarriko du, eta zergatik ez, seguru aski zurea ere bai. Elkar ulertzeaz eta errespetuaz mintzo den liburua.

B – Euskaldun bat Marten

Arratsalde baketsu batean, soinu berri bat entzun zen Zarauzko Santa Barbara mendian, eta geroxeago argi dirdiratsu itsugarri bat jaitsi zen ortzitik mendi gainera. Horrelaxe heldu ziren martelarrak Euskal Herrira *ovni* batean. Euskaldun bat eraman nahi zuten Martera.

C – Txano eta Oscar Harri berdea

Kaixo! Txano dut izena, eta anaia biki bat dut: Oscar. Ikusi al duzu inoiz meteorito bat zerutik erortzen? Ba, guk bai… Uda hasieran, txango bat egiten ari ginela, halako batean suzko bola erraldoi batek zeharkatu zuen zerua gure begien aurrean, eta basoan erori zen! Bai, badakit berehala aldendu behar izango genukeela handik, baina ez, gu meteoritoaren bila abiatu ginen. Baita aurkitu ere! Harri berde bitxi bat zen. Bere distiraren atzean gordetzen zuen sekretuak betiko aldatu zuen gure bizitza. Etorri nahi duzu gurekin sekretu hori argitzera?

D – Robot txiki bat

Egun batean neskatila batek, ataritik irtetzerakoan, hantxe ikusi zuen, etxeko horma on-doan, robot txikia, asperturik egoteko itxuraz. Hori iruditu zitzaion nes-ka-tilari, robota kolpeka ari baitzen zoruaren kon-tra, metalezko oin-txoa-re-kin, astiro eta erritmikoki, espaloiko harlauzen gai-nean. -Galduta nago-esan zuen txistuaren pareko ahotsaz, eta neskatilak ez zuen ezer esan, hura ez baitzen oso gauza normala. Egia esateko neskatilak inoiz ikusi gabea zeukan benetako robot bat.

E – Istorio zibernetikoak

Izaki zibernetikoak, robotak, androideak, makinak… zertan desberdintzen dira gugandik? Amets egiten al dute ardi elektronikoekin? Ba al dakite maitasuna zer den? Eta gorrotoa? Eta beldurra? Galdera horiei erantzuten dieten filme batzuen errekreazio libreak irakurriko dituzu liburu honetan: Terminator, Blade Runner, Westworld eta Alien.

F – Espedizio galdua

Isolaturik dagoen umezurtzen etxe batean sartu berri da Jon. EZ du familiarik, eta ez du inor ere. Izaera inkonformista du, eta horregatik talaka egingo du tokiko harroputzekin eta eskolako zuzendariarekin. Gau batean, Mirkak gidatutako espazio-ontzi bat agertzen da. Neskatoa estralurtar gazte bat dan eta bere misioa da duela mende asko Lurretik gertu desagertu zen espedizio estralurtar bateko kideak aurkitzea.

Jonek ez du umezurztegitik ihes egiteko aukera galtzen utziko, eta Mirka konbentzituko du bera ere misioko kide izateko.

Horiek horrela, abentura berri batean murgilduko dira: besteak beste, ozeano Atlantikoan hondoratutako galeoi espainiar baten hondakinak esploratuko dituzte, Erdialdeko Amerikako oihaneko aztarnategi inka batean sartuko dira edota espazioko mugaldean barrena bidaiatuko dute.

G – Hitz eta zaunka

Bazen ehiztari bat oso tirolaria, tiro eta tiro ibiltzen zena.

Txakur bat ere bazen oso zaunkaria, uau eta uau isiltzen ez zena.

Halako batean, txakur zaunkariak letagin zorrotzeko basurde handi-handi batekin topo egin zuen aurrez aurre.

Eta susto haren ondorioz, gauza harrigarriak gertatu ziren handik aurrera.

H – Alizia haurrentzat

"Alizia XIX. Mendeko Ingalaterran bizi den neska kokina da. Egun batez, erreka bazterrean aspertzen ari delarik, sakelako ordulari bat duen untxi bat ikusi duela iduritu zaio. Haren ondotik abiatzea deliberatu du. Eta orduan...

Untxi horren ziloan sartuz —eta abentura zenbaiten ondotik— lurralde miresgarrira heldu da. Han izaki bitxiak ezagutu ditu: txapelgile eroa, martxoko erbia, beldar nargile erretzailea... Baina lurralde miresgarriko biztanle bitxiena hango buruzagia da: bihotzetako erregina."

I – Super PATATA Nahaspila kosmikoa

Bare erregeak eta beste preso arriskutsu batek Mikrongo Segurtasun Handiko Izarrarteko Espetxetik ihes egitea lortu dute. Ontzi bat lapurtu, galaxia zeharkatu, eta Lurrera bidean doaz. Lurrean, Superpatatari eginkizun berri bat eman diote: Mastekatzaile harrapatzea. Kostako zaio, ordea. Izan ere, Mastekatzailek metalezko baraila birrintzaile berri-berri bat dauka, izugarri ahaltsua, eta, dirudienez, inon den patatarik ausartena hozkatuz estreinatu nahi du. Hala ere, hori guztia abenturaren hasiera baino ez da ...

J – Alfonbra berria

Anartz eta Aioraren etxeko egongelan badute alfonbra zaharkitu bat, eta amak berria erostera bidali du aita. Anartzek eta Aiorak aitari lagundu diote dendara. Baina alfonbrak saltzen dituzten dendetan beti dago arriskua bakarren bat alfonbra hegalaria izateko. Halako batekin topatu dira Anartz eta Aiora. Jakina denez, alfonbra hegalariak Ekialdekoak dira, eta Anartz eta Aiora haren gainean jarri direnean ... magia gertatu da.